

# J.A. MOGELEKO IKASTOLAN JOLAS-EREMU ETA NATUR INGURUNE AKTIBOAK, JASANGARRIAK ETA INKLUSIOBOAK SORTZEKO PROIEKTUA

Red adscrita  Euskadi Aktiboa 

## Temas

Infancia, Actividad física.

## Descripción

J.A Mogel ikastola Eibarren kokatzen den haur eta lehen hezkuntzako ikastxe publikoa da. Hiru eraikinek osatzen dute, 2 hiri barnean (haur hezkuntza) kokatzen dira eta bestea (LHkoa) Mandiola bailaran, herritik 3 kilometrora.

Azken urteetan, Guraso Elkartetik eskolak zeuzkan hutsuneen artean hauek nabarmendu genituen: Iturburuko jolaseremuak hiru kirol mota egiteko egokituak daude: futbola, saskibaloia eta eskupilota. Hainbat ikasleek ordu libreetan ez dute eremu egokirik aurkitzen beraien interes eta gustoko diren ekintzak gauzatzeko, patioak ia bere osotasunean jolas horietara zuzenduak daudelako. Iturburuko eraikuntza mendian kokatu arren ikasleek ez dute inguruan duten naturaguneekin kontaktu zuzenik izateko aukerarik. Oso modu puntualean irteten dira, nahiz eta eremuak aire zabalean ekintzak egiteko aukera paregabe eskaintzen dien. Herriko ikastetxeetan patioak eta ingurunea ia osotasunean zementuz estalia dago. Eibar herri industrializatua izanik, ikasleek ez dute natura bertatik bertara ezagutzeko aukerarik, eta lehen hezkuntzako umeentzat gabezia izugarria iruditzen zaigu.

Familien eta eskolaren

arteko harremanak, batez ere ikasleak Iturburuko zentrora igotzen direnean, ahuldu egiten dira. Familiak ez dira eskolako eragile aktiboak eta kolektibitatearen balio galtzen ari da. Guzti honetarik

Guraso Elkartek azken 4 urteetan proposamen eta lan ildo ezberdinak bideratzen ari da: Lehengo urratsa, hiru eraikuntzetan ikas eta jolas eremu bihurtuko diren baratzak egokitzea izango zen. Baratzak hezkuntza komunitate osoaren partaidetzaz gauzatu dira eta auzolanaren balioa eskola orduetatik kanpo eta hezkuntza komunitate osoan sustatzea nahi da. Bigarren urratsa jolas-eremuen diagnostikoa eta eraldaketa izango litzake. Ikasleei jolasteko gune inklusiboak, aktibo eta noski, irisgarriak sortzeko aukerak aztertzea eta egokitzea izango da. Hirugarren urratsa Iturburu inguratzen duen naturaguneak berreskuratzea, eta eskolaren eremu bat bezala egokitzea eta erabiltzea izango litzake. Horretarako, irisgarritasuna bermatzeko hainbat lan aurreikusten dira. Aldi berean, natura biziberritzeko lanak egin beharko dira. Eskola gune hauek herritarrei zabaltzea nahiko genuke, asteburu eta arratsaldetan eremua hauek erabiltzeko aukerak aztertzen ari gara. Proposamen horiek eskolako zuzendaritzarekin eta Udalarekin batera lantzen ari gara.

Guraso Elkartak, Udalak eta eskolak proiektuarekin lortu nahi duena hurrengo da: Jolasteko eremu berriak eraikiko ditugu, umeen arteko harreman anitzak bermatzen dituztenak eta jarduera fisikoa egiteko alternatibak eskainiko ditugu. Ingurumen hezkuntza eta naturarekin erlazioa berpizteko jarduerak eta aukerak martxan jarriko ditugu. Elikagaiak ekoizteko prozesua ulertzea eta bertatik bertara ikusteko eta ahurtzaroan balio horiek barneratzeko hainbat ekintza antolatuko ditugu, etorkizunean elikadurak osasunean duen eragina bermatzeko asmoarekin. Familiak eskolan parte hartzeko guneak eta ekimenak eraikiko ditugu, non eskola orduetik kanpo ume, guraso edota aitonamonek aisialdi aktiboa eta parte hartzailea gauzatzeko aukera izango duten. Aurreko ekintzak kurrilunean txertatuko ditugu hezkuntza komunitatearekin batera. Beraz, proiektuaren helburu orokor eta espezifikoak hauek lirateke: Helburu orokorrak: Ikasleen osasuna indartzea eskolamailako jardueretan. Ikasleen jolas-aukerak handitzea eta ikas-eremuak gelatik kanpo eta aire zabalean bermatzea, jarduera fisikoa eta elkarbizitza handituz. Mugimendua eta jarduera fisikoa bultzatzen eta berdintasunean eta auzolanaren errespetuan oinarritutako kalitatezko harremanak eta esperientziak sustatzea. Aisialdi aktiboa familian egiteko aukerak handitzea eskola eremuan. Aldi berean, auzolanaren balioa eta kolektibitatearen indarra sustatu. Helburu espezifikoak: J.A. Mogelesko hiru ikastetxeetan baratza egokitzea, non hezkuntza erkidegoko eragile guztiak partehartzea sustatuko den (ikasleak, familiak, irakasleak, ikastetxeko langileak...) Eskolabaratzea

ikasgela bihurtzea, hau da, gizarte, zientzia, arte, teknologia, gastronomia, kultura eta abarrei buruzko ezagutzak bereganatzeko gunea bihurtzea eta ikas-gune eremu berri bat gauzatzea aire zabalean. Asialdi aktiboa familian egiteako aukerak handitzea eskola eremuan baina eskola ordutegitik kanpo, bai baratzaren kudeaketa kolektiboa eta partehartzailean eta eskola inguruko natugune berreskurapenean. Ikastetxeetako jolastokiak eraldatzea, biguntzea eta ikaskuntzarako, jolaserako eta mugimendurako espazio inklusibo bihurtzea. Eskola eremuaren inguruan naturgunea eta biodibertsitatea berreskuratzea auzolanean, familien artean aisialdi jasangarri eta osasuntsuago bat eskainiz. Eskola eremutik kanpo daduen txokoak umeentzat jolas eta ikas eremu bezala berreskuratzea.

---

## Contacto

mogelge@gmail.com

---

## Fecha de última actualización del recurso

17/02/2022

---

## Situación actual del recurso

Activa

---

## Localización

Avenida Mandiola Balle 29 20600 Eibar Eibar Gipuzkoa Euskadi España

